

CALVO, S., GUTIÉRREZ, J. (2007)

*El espejismo de la educación ambiental.* Madril: Morata.

Inork ez du ukatzen gaur egun gizarteak erronka handi bati erantzuteko ardura duela bere gain, jarduera desberdinek eragindako ingurumen-arazoei aurre egitea, hain zuzen ere. Baina, zoritxarrez, hor bukatzen dira adostasunak.

Hezkuntza da arazoak konpontzeko irtenbideak bilatzen ditugunean beti agertzen den tresna, baina arazoak konpontzeko egin beharreko aldaketen sakontasuna zehazterakoan agertzen diren ikuspuntu desberdin berberak azaltzen dira dugun hezkuntza ereduan ere, bere helburu, marko teoriko, metodologia zein praktikan.

Horixe da, hain zuzen ere, Susana Calvo eta José Gutiérrez-ek liburu labur (119 orrialdekoa eta 21 x 13.5 zm-koa) bezain argigarri eta sakon honetan hartzen duten gaia. Horrela, ingurumen-arazoei buruz gizartean izandako eztabaida eta honekin erabat lotua dagoen ingurumen hezkuntzaren historiaren pausuz pausuko kontakizunetik abiatzen dira, munduko mailan lehenengo eta estatuko mailan ondoren. Gaur egungo egoera aztertzean hain «modan» dauden iraunkortasuna, garapen iraunkorra eta garapen iraunkorrerako hezkuntza kontzeptuetaz eta hauen erabilera zabalduan agertzen diren irudikerietaz egindako kritika oso interesgarria egiten dute.

Ez da ariketa hutsala ingurumen hezkuntzaren historian zehar izan diren eredu eta praktikak azaleratzea, gaur egungoak ulertzen eta hauen aurrean kritikoak izaten laguntzen bait gaitu liburuak, egia da ingurumen hezkuntzak asko aurreratu duela azken urte hauetan, maila handi batean

lortu da gizarteak, instituzio politikoek barne, bere beharra onartzea eta, honekin batera, «modak» lagunduta, ingurumen hezkuntzaren izena hartzen duten gero eta ekintza gehiago izatea, baina aldi berean, ingurumen hezkuntza bera aldatuz joan da, eta bide horretan garapen oso desberdina izan duten adarrak agertu dira, gizartea eta politika ulertzeko modu oso aldentuak dituzten adarrak. Pentsa daiteke kantitatean irabazi dena nolabait seriotasunean galdu dela, garbiago zegoela zein zen ingurumen hezkuntzaren zentzu politikoa hasierako praktika sutsu eta erromantikoetan, baina ez da gutxi bidean ikasi dena.

Etorkizunari begira jartzen gaitu bukaeran liburuak, gaur egungo teoria ekonomiko, sozio-politiko filosofiko, soziologiko, psikologikoak eta pedagogikoak laburtuz, eta hezkuntza formalean zein ez formalean izan diren esperientziak erakutsiz.

Hau guztia kontuan hartuz, ingurumen arazoei buruzko kezka bere praktikan isladatzen duen edo isladatzea nahiko lukeen hezitzaile orori dago zuzendua liburua, batez ere praktika, oinarri sendo eta kritikotetan ezarri nahi duen orori.

*Araitz Uskola*

PRIETO NAVARRO, L. (2007)

*Autoeficacia del profesor universitario. Eficacia percibida y práctica docente.* Madril: Narcea.

Liburu honetan Leonor Prieto Navarro autoreak Unibertsitate arloan garatutako irakaskuntza arloaren inguruan gertatzen ari diren aldaketa horien guztien berri ematen digu; aldaketa horiek, autoreak dioten moduan, Goi mailako Hezkuntzaren Europar Espazioan planteatutakoaren ondorioz agertu zaizkigu eta horiei aurre egiteko urrats esanguratsuak modu eraginkorren eman beharko ditugu. Hori da hain zuzen ere liburuan autoreak aztertzen dituen elementu nagusietako bat, dozentzia arloan irakasleok auto-efikazia delakoa garatzeko egin beharko dugun hausnarketa eta praktikan aurrera eraman beharko dugun lana. Honekin lotuta, aurretik idatzitako hitzen esanahia hobeto ulertzeko, eta autoreak berak azpimarratzen duen moduan, esan behar da Irakasleriaren Auto-efikazia ikasleei beren aprendizai prozesuan laguntzeko irakasleok geure buruarekiko erakusten dugun konfiantza maila bezala aurkezten zaigula, geure gaitasunean daukagun konfiantza hain zuzen ere.

Auto-efikazia horren inguruan irakasleok erakuts ditzakegun sinismenek eragin handia eduki dezakete irakaskuntza prozesuan eta horren barruan erabiltzen ditugun estrategia didaktikoen erabileran; eta aipatutako

honek, azken finean, unibertsitate arloan ikasleek garatzen duten apendizaiaren kalitatea bera ere muga dezake. Auto-efikazia sentimendu ahula erakusten duten irakasleek, adibidez, askotan irakats modu autoritario baten alde egingo dute, ikasleek motibazio maila baxua dutela pentsatuz eta klaseko diziplina mantendu ahal izateko kontrol zorrotza ezarriz. Auto-efikazia sentimendu positiboa dutenak, ordea, ikasleen interes pertsonalak eta auto-erregulazio akademikoa posible egingo duten esperientziak proposatu eta aurrera eramatearen aldekoak izango dira.

Beraz, autoreak, aurretik aipatutako printzipio horiek garatuz, auto-efikazia praktika profesionalaren oinarri nagusi bat suposa dezakeela azpimarratuko digu; horren inguruan egin beharreko hausnarketaren garrantzia ere adieraziko digu.

Hasiera batean printzipio hauek maila indibidualean aztertu arren, horiek maila kolektiboan aztertzeko beharraz ere hitz egingo digu, irakasle talde batean hain zuzen ere, denok sentitu behar baitugu proiektu beraren partaide, horren alde guztion gogo eta ahaleginak uztartuz hezkuntza errealitate berrian ahalik eta modurik arrakastatsuenean aurrera egin ahal izateko.

Beraz, esan bezala, auto-efikazia printzipioa da liburu honen ardatza, horren inguruko aspektuak zehatz mehatz interpretatuko direlarik, beti ere gure irakats praktika aztertzeko eta hobetzeko ideiak eta aholkuak eskainiz. Liburuaren bukaera aldean, hasierako aurkezpen teorikoa gaindituz, irakasleon auto-efikazia baloratzeko eskala bat eskainiko zaigu, horren aplikapenaren bidez gure irakats praktika errealitatean aztertu eta lortutako emaitzen ondorioz irakats prozesuari buruzko zenbait erabaki hartzeko aukera aurkituko dugularik.

Azken finean, hasieran aipatutako erronkari, Europar Espazioarenari hain zuzen ere, aurre egiteko prozesuan bete bete sartuta gaudela azpimarratuz, eta horrek gure irakats praktikan aldaketa asko egitera bultzatuko gaituela kontuan hartuz, liburu honetan zehar balio handiko ideia eta orientabideak aurkitu ahal izango ditugu; akaso horiek aurrerago eta pixkanaka jarri nahi izango ditugu praktikan, baina liburua irakurtzeak sortuko digun hausnarketa egiteko beharrak, nire ustez behintzat, abiapuntu garrantzitsu bat suposatuko du, eta hori ez da gutxi.

Hasieran aipatu dugun autorea, Leonor Prieto Navarro, Psikopedagogian Doktorea da, Unibertsitate Didaktika arloan espezializatua. Gaur egun Madrilgo Comillas izeneko Unibertsitate Pontifiziaren irakaslea da. Irakaskuntzaren inguruko ikerketa oinarritzat hartzen duten nazio eta nazioarteko elkarte askotan partaide moduan agertzen zaigu, horren ondorioz sari garrantzitsuak lortuz.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*

ÁLVAREZ-URÍA, F. (2007)

*Karl Marx, Max Weber y Emile Durkheim. Sociología y Educación: Textos e intervenciones de los sociólogos clásicos.* Madril: Morata.

Liburu hau Morata Argitaletxeak sortutako «Raíces de la memoria» delako bilduma baten barruan agertzen zaigu. Bilduma honen helburua irakurlearentzat hezkuntza eta kulturaren inguruko testu adierazgarriak aurkeztea da, kontuan hartuz gainera zenbait kasutan testu hauek ezin direla oso erraz aurkitu. Beraz, aipatu den moduan, bilduma honen barruan agertzen diren obrek gure memoria kolektiboaren oinarri garrantzitsua suposatu beharko lukete.

Oraingo honetan, Fernando Álvarez-Uría-k Karl Marx, Max Weber eta Emile Durkheimen testuak biltzen ditu. Hasieran bildumaren inguruko aurkezpenean helburu nagusizat hartzen dena jarraituz, kasu honetan ere autore hauen inguruko testurik adierazgarrienak biltzen dira. Honen bidez ere irakurlea motibatu nahi da autore hauen beste testu edo obretan sakontzea bila dezan. Horrekin batera, hezkuntzaren inguruko aspektuak marko historiko eta sozial baten barruan zentratzeko aukera aurkituko da, modu honetan aspektu horien benetako zentzua errazago ulertuz.

Aztertutako autoreek ilustratuekin gizarteen demokratizazio prozesua aurrera eramateko beharra konpartitu zuten, horrekin batera gizarte zientzien funtzio emantzipatzailea ere azpimarratuz. Orokorrean autore hauentzat hezkuntzaren helburua ez da instrukzioaren baitan agortzen; hezkuntzaren benetako helburua hiritar libre, konsziente eta hausnarkorren formakuntza izan behar duela argudiatzen dute.

Obra honetan zehar erakusten da zenbait kasutan aztertutako autore hauen planteamenduak ez direla kointzidenteak; hala ere, benetan baloratu behar dena da prozesu sozial eta erakundeen soziologia kritiko batekiko bidea ireki zutela, bide horren oinarri nagusizat hiritartasun eta gizarte ideal baten bilaketa agertuz.

Beraz, hasieran aipatu den moduan, obra honetan aztertzen diren testuen balioa azpimarratzeaz gain, baloratu behar da horiek irakurtzeak prozesu baten hasiera besterik ez duela suposatuko, autore hauen beste obra batzuetan sakontzeko benetako motibazioa sortuko baitigu.

*Igor Camino Ortiz de Barrón*

RUE, J. (2007)

*Enseñar en la Universidad. El EEES como reto para la Educación Superior.* Madril: Narcea.

Liburu honen egileak gisa honetako galderei erantzuna eman nahi die: Unibertsitate Hezkuntzaren Europar Esparrua aukera estrategikoa al da?

Egiten duguna krisian ote? Horrelako aldaketa konplexua nola kudeatu? Borondatea nahikoa izango al da aldaketa horretarako? ala estrategia zehatzaren bat diseinatu beharko al da? Zein tresnak garatu behar ditugu?

Liburu honetan erronka honi aurre nola egin dakioken planteatzen da. Erantzun hori, irakaskuntzaz arduratzen den irakasleriaren ikuspuntutik eman nahi izan da. Erantzun horretan bi dira guneak, alegia, proposamenaren garapenak duen unibertsitate-autonomiaren izaera eta emandako irakaskuntzaren kalitatearen indartzea.

Liburua bi zati nagusitan egituratu daiteke. Lehendabizikoan, Unibertsitate Hezkuntzaren Europar Esparruak suposatzen duen aldaketaren inguruko hausnarketa ematen da. Zer den eta zein aldaketak ekarriko ditu. Halaber, unibertsitate-formakuntzan berebiziko garrantzia hartuko duen «gaitasunetan oinarritutako formakuntza»-ri dedikatzen dio kapitulu bat.

Bigarren zatia irakaskuntza-praktikaz jarduten da. Bertan egileak titulazio baten garapenerako eredu bat proposatzen du, gaur egungo titulazioak egokitzeko beharko lirakeen aldaketei arreta berezia eskainiz. Honekin batera, une historiko honetan irakaskuntza-jarduerak edukiak, metodologiak eta teknologia-bitartekoak birdefinitu behar dituen ideiatik abiatuz, irakaskuntza eta ikaskuntzaren artean sortu daitekeen erlazioari buruzko gogoeta burutzen du egileak.

Azkenik aipatu behar da egileak aurkezten dituen hainbat tresna titulazio baten garapenerako Unibertsitate Hezkuntzaren Europar Esparrua ereduan. Tresna hauek egile berak 2003-2005 bitartean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, hainbat titulazioen koordinatzaile gisa metatutako eskarmentutik sortutako eta garatutako tresnak dira.

*K. Santiago*